

GIPUZKOAKO ABOKATUEN ELKARGO PRESTUAREN GOBERNU BATZORDEKO IDAZKARI JAVIER  
SEGURA DIAZ DE ESPADA JAUNAK

ZIURTATZEN DU: Idazkaritza honetan dauden datuetatik eta aurrekarietatik ondorioztatzen denez, Gobernu Batzordeak, bi mila eta hemezortziko otsailaren hogeita batean egindako bileran, aurrez eztabaidaturik eta aho batez, hauxe erabaki zuela:

Hamaikagarren Puntua.- “Domingo Arizmendi Dekanoa Etika Juridikoaren I. Saria” antolatzea. Hartu beharreko erabakiak.- Lurdes Maiztegui Dekano andreak jakinarazi du, elkargoaren bazkaria 2018ko ekainaren 8an egitea aurreikusia dagoela kontuan izanik, aukera ederra dela bertan Domingo Arizmendi Dekanoa Etika Juridikoaren I. Saria emateko, eta horrexegatik antolatu da, Gipuzkoako Abokatuen Elkargo Prestuko Gobernu Batzordeak 2017ko maiatzaren 22an onetsitako oinarriekin bat etorritz. Gobernu Batzordeak, aurrez eztabaidaturik, aho batez erabaki du “Domingo Arizmendi Dekanoa Etika Juridikoaren I. Saria” antolatzea, ondorengo **OINARRIEKIN** bat etorritz:

**LEHENA.-** Sari honen helburua, hain zuzen ere, Zuzenbidearen jardueran kaudimen etikoaren eta deontologikoaren balioak sustatzea da, eta horren bitartez, aitorten bat eskaini nahi zaie balio horiekin duten konpromiso aktiboan nabarmendu direnei, horien ahaleginari esker lanbide juridikoekin naturaltasunez lotutako baliotzat jasotzen baititu gizarteak.

**BIGARRENA.-** Sari hau urtero antolatuko da, eta Gipuzkoako Abokatuen Elkargo Prestuko Gobernu Batzordearen eskumena da deialdia noiz egin erabakitzea.

**HIRUGARRENA.-** Gipuzkoako Abokatuen Elkargo Prestuko Gobernu Batzordeak Epaimahai gisa jardungo du.

**LAUGARRENA.-** Gipuzkoako probintzian bizilekua duten edo Gipuzkoako probintziarekin lotura berezia duten Legelariak aurkeztu daitezke sari honetara.

Hautagai-zerrenda norbanako batek nahiz talde batek osa dezake. Interesatuak edo beste edozein pertsona edo erakundek **2018ko maiatzaren 18ko 14:00ak baino lehen, ostiralarekin**, aurkeztuko dute. Elkargoaren egoitzan edo Gipuzkoako Abokatuen Elkargo Prestuak Irunen, Tolosan, Bergaran, Eibarren eta Azpeitian dituen Toga Aretotako batean aurkeztuko da.

Gobernu Batzordeak beste edozein hautagai-zerrenda proposatu eta salbuespen gisa kontuan hartu ahal izango du, baldin eta, aurkeztu ez arren, bere iritziz nahikoa merezimendu betetzen badu.

**BOSGARRENA.-** Sariak ez du inolako ordain ekonomikorik izango, salbuespen modura Gobernu Batzordeak horrela erabaki ezean, unean uneko ezaugarri bereziak eta merezimenduak kontuan izanik.

Irabazleak saria jaso izanaren plaka egiaztagarri bat jasoko du. Nahi duen tokian agerrarazi dezake sari hori.

**SEIGARRENA.-** Gipuzkoako Abokatuen Elkargo Prestuko Gobernu Batzordeak gehiengo absolutuz eta arrazoiturik hartuko du erabakia, aurkeztutako hautagai-zerrenden artetik. Ezin da erabaki horren aurka egin.

**ZAZPIGARRENA.-** Gipuzkoako Abokatuen Elkargo Prestuko Gobernu Batzordeak **2018eko maiatzaren 23an egingo duen bilkuran** erabakiko du saria nori eman.





# ICAGI

ILUSTRE COLEGIO DE ABOGADOS DE GIPUZKOA  
GIPUZKOAKO ABOKATUEN ELKARGO PRESTUA

**ZORTZIGARRENA.-** Gobernu Batzordeak edozein unetan baliogabetu dezake sariaren emanaldia, baldin eta saria jaso duenak horrelakorik merezi ez izateko arrazoiak daudela jakiten badu.

**BEDERATZIGARRENA.-** Saria emateko ekitaldian Dekano Andre Txit Argia izango da ekitaldi-buru, eta komeni den handitasuna ematen ahaleginduko da, Abokatutzaren erakunde-irudia indartzen eta gizartean aitorten egoki bat eskaintzen lagundu dezaketen Justiziako eta Zuzenbideko profesionalei eta ordezkariari gonbidapenak igorritz.

**HAMARGARRENA.-** Sari honetara aurkezteak bere oinarri guzti-guztiak onartzen direla esan nahi du.

Eta dagokion tokian horrela ager dadin eta bidezko ondorioak izan ditzan, honakoa jakinarazten dut Donostian, bi mila eta hemezortziko otsailaren hogeita bian.